

GEREDIAGAKO SAN SALBADOR ETA SAN
KLEMENTEREN BASELEIZA ETA BATZAR-LEKUA

*ERMITA DE SAN SALVADOR Y SAN CLEMENTE DE
GEREDIAGA Y LUGAR DE JUNTAS*

Abadiño



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



GEREDIAGAKO SAN SALVADOR ETA SAN KLEMENTEREN BASELEIZA ETA BATZAR-LEKUA

BATZARRAK

Honako hau mendeetan izan da Durangaldeko eleizateen batzar-lekua. Durangaldeak bizitza politiko autonomoa izan eban merinaldeari egokozan arloetan, eta historian zehar Bizkaiko enparaduko eskualdeetatik bananduta egon zan; Nafarroako Erreinuaren muga be izan zan. Durangaldearen nortasun bereziaren erakusgarri da, esaterako, Gernikako Batzar Nagusietara Durangaldeko eleizateetako ordezkariak barik, Gerediagako Batzarrak izendatutako eskudunak joaten zirala. Eskudunok, hasiera baten, 1628.etik aurrera, bi izan ziran; osterago, 1740.ean 5era heldu ziran, eta 8 izatera be heldu ziran, 1800.ean. Durangaldeak bere Korrejidoreordea eukan.

Hurrengo Eleizateok euken jarlekua Gerediagan:


Abadiño	1	Zaldibar	7(8)
Berriz	2	Garai	8(7)
Etxebarria	3	Arrazola	9(10)
Mallabia	4	Axpe	10(9)
Iurreta	5	Apatamonasterio	11
Mañaria	6	Izurza	12

Uribilduak (Durango, Otxandio eta Ermua) osteragokoak ziran eta beste Foru batzuk eukezan. Eleizateak ez giten ebezan batzarrak Astolan izaten ziran, baina inoiz be ez Gerediagan. Gerediagako batzarretan antxina-antxinatik batzen ziran jatorrizko herriak, eta antxinatik izango zan ze Juana I.ak, Zoroa ezizeneko hak, 1508.ean aspaldikotzat jotzen zituan batzarrok. Garizuma, Mendekoste eta Gabonetako Pazkoetan giten ziran Batzarrak.

Elorrioko uribildua eta Etxebarriako San Agustin eleizatea batu egin ziran 1630. urtean eta ez eben batzarretan parte hartzen.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



ERMITA DE SAN SALVADOR Y SAN CLEMENTE DE GEREDIAGA Y LUGAR DE JUNTAS

JUNTAS

Aquí se reunían las anteiglesias del Duranguesado desde tiempo inmemorial. El Duranguesado tuvo una vida política autónoma decidiendo acerca de sus propios asuntos. De hecho, durante algunas épocas históricas estuvo separado políticamente del resto de Bizkaia, siendo en algún tiempo frontera del reino de Navarra. Muestra también de esa personalidad es que la participación del Duranguesado en las Juntas de Gernika nunca fue individual por cada anteiglesia sino que la Junta de Gerediaga enviaba representantes comunes, primero dos desde 1628, aumentándose posteriormente en 1740 a 5 hasta un máximo de 8 en 1800. El Duranguesado tenía su propio Teniente de Corregidor.

Las anteiglesias y su número de asiento en Gerediaga eran:

Abadiño	1	Zaldibar	7(8)
Berriz	2	Garai	8(7)
Etxebarria	3	Arrazola	9(10)
Mallabia	4	Axpe	10(9)
Iurreta	5	Apatamonasterio	11
Mañaria	6	Izurza	12

Las Villas, como poblaciones posteriores y con distinto fuero (Durango, Otxandio y Ermua) se reunían con las anteiglesias en Astola pero nunca en Gerediaga, reservada a los núcleos de población originales donde se concentraban, como en 1508 ya afirmó Juana I La Loca, “desde tiempo inmemorial”. Las Juntas tenían lugar en Pascuas de Resurrección, Pentecostés y Navidad.

La villa de Elorrio y la anteiglesia de San Agustín de Etxebarria, que había constituido un solo pueblo en 1630, no solían participar en las reuniones.



GEREDIAGAKO SAN SALVADOR ETA SAN KLEMENTEREN BASELEIZA ETA BATZAR-LEKUA

ENGANTXEA


Lehenengo Foru-Zelaia Martín López de Traña jaunak egin eban 1621.ean. Elipse itxura antzekoa eukan; erditik egoan biribilguretako batetik ertzetarantz 16 erradio zituan, 7,95 metrokoak. Gaur egun jatorriz egoanaren erdia baino ez da geratzen, Durango-Eibar errepidea egin zanak hara (1789) izaniko lur-jausien erruz desagertuz joan zan-eta.

Seguruenik hori dala-ta, XIX. mendearen lehenengo erdialdean plaza osatu egin zan, ipar-sortaldean beste zati bat gehituta, ilargi-erdi itxurakoa eta perimetro poligonalekoa, baseleizearen ondo-ondoraino heltzen dana.

Foru-Zelai horretan (eta, eguraldi txarra zanean, baseleizearen barruan be seguruen) egiten ziran Batzarrak. Zelaiaren perimetroan, baseleizea atzealdean eukela, tente jarrita, munarri batzuk egozan, eleizate bakotzeko bana, bertan jarri eitezan eleizateetako ordezkariak. Bost jarleku jatorrizkoak dira eta egozan leku berean dagoz, bigarren plazaren perimetroan; beste guztiak barriagoak dira eta 1961. urtean ipini ziran, baina ordurako plaza lurrez guztiz estalita egoan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Lehenengo plaza, 1621
Primera Plaza, 1621

Bigarren plaza. XIX. mendearen lehenengo erdialdekoa
Segunda Plaza, primera mitad del siglo XIX



ERMITA DE SAN SALVADOR Y SAN CLEMENTE DE GEREDIAGA Y LUGAR DE JUNTAS

PLAZA

La primera plaza fue realizada por Martín López de Traña en 1621. Se trata de una estructura ligeramente elíptica de la que quedan 16 radios de 7'95 metros que parten de un pequeño círculo central. Hoy sólo podemos ver la mitad puesto que el resto se cayó en los sucesivos derumbamientos provocados por el talud de la carretera Durango-Eibar (1789).

Probablemente por esa razón en la primera mitad del siglo XIX se acomete una complementación de la plaza, añadiendo en la zona nordeste de la misma una estructura con cantos rodados de menor calidad en forma de cuarto de luna y perímetro poligonal que llega a tocar la ermita.

En esta plaza se hacían las Juntas (y probablemente en el interior de la ermita en caso de mal tiempo) y en su perímetro estaban colocados los poyos o mojones de piedra que servían de asiento a los representantes, dando la espalda a la ermita. Cinco de los poyos son originales y están en su lugar, en el perímetro de la segunda plaza, mientras que el resto son modernos y se colocaron en círculo en 1961, en una época en la que la plaza había sido cubierta completamente por una capa de tierra. Con la última restauración los arqueólogos los reubicaron siguiendo la secuencia original y con el condicionante de la falta de la mitad de la plaza.



GEREDIAGAKO SAN SALVADOR ETA SAN KLEMENTEREN BASELEIZA ETA BATZAR-LEKUA

BASELIZA

Antza danez, lehenengo baseleizea, San Salvador eta San Klementerena, XVI. mendean egin eben. Jatorrizko haretatik iparraldeko harlanduzko hormako zati batzuk baino ez dira geratzen. Baseleizea nabarmen aldatu zan XVII. mendean inguru guztian egin zan aldaketeagaz batera, izan be garai haretako hormarriak dira-ta gaur eguneko baseleizearen kanpoko hormetan dagozanetarik gehienak.

1876.ean erantsi jakon sakristia.

1961.ean zapaia jausi egin zanez, Aldundiak barrizatze eta konponketa-lanak egin zituan. Lanon barruan aldatu egin zan portikoaren itxurea, lau zutabe neoklasiko jarri ziran eta kendu egin ziran pulpitua eta aldarea.

Gerdiagako Kofradia erakunde zibila zan arren, Estatuak, 1841.eko Desamortizazio Legean oinarrituta, desjabetu egin zituan Baseleizea eta Zelaia. Gerdiagako auzokoek errematean erosi eben 1844.ean eta haren ondorengoek Bizkaiko Batzar Nagusiei eskualdatu eutsien 2000. urtean.

Behin inguru guztian arkeologia-araketak egin eta osteragoko lan guztiak zelan gauzatu behar ziran jakiteko txostenak atondu ostein, 2003. urtean amaitu zan baseleizearen barrualdearen barrizatze eta eraldaketea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



ERMITA DE SAN SALVADOR Y SAN CLEMENTE DE GEREDIAGA Y LUGAR DE JUNTAS

ERMITA

Parece que la primera ermita, dedicada a S. Salvador y S. Clemente, se levantó en el siglo XVI. De esa primera construcción quedan algunos tramos de sillarejo en el muro septentrional. Pero sufrió una modificación importantísima con la urbanización del lugar en el siglo XVII, ya que la mampostería de esa época constituye la mayor parte de los muros exteriores actuales.

En 1876 se construyó el anexo de la sacristía.

En 1961 el techo se derrumbó y la Diputación acometió una reparación y reforma, cambiando el aspecto del pórtico colocando cuatro columnas neoclásicas y suprimiendo el púlpito y el altar.

A pesar de ser la Cofradía de Gerediaga un ente civil la ermita y la campa fueron expropiadas por el estado en base a la Ley de Desamortización de 1841, y compradas en subasta en 1844 por los vecinos de Gerediaga cuyos descendientes la transmitieron a las Juntas Generales de Bizkaia en el año 2000.

En 2003 finalizó el saneamiento y reforma interior de la ermita tras realizar las correspondientes excavaciones e informes arqueológicos que delimitaron las actuaciones posteriores.

GEREDIAGAKO SAN SALVADOR ETA SAN KLEMENTEREN BASELEIZA ETA BATZAR-LEKUA

ARETXA

Beste Batzar-Leku batzuetan lez, Gerediagan be Foru-Aretxa egoan. Durango-Eibar errepidea egin (1789) eta urte gitxigarrenera, desagertu egin zan Aretxa, errepidearen ezpondatik hur egoan eta. Gaur egun dagoan Aretxa Gerediagan, bertako zugaztitxo baten, hazitakoa da, eta beharbada Aretx zahar haren ezkurretatik ernetakoa izango da.

KURUTZEA

Hareharrizkoa da, 1633.ean egina. Fustearen ganean kapitela dauka eta horren ganean datza kurutzea: Alde baten, Jesukristo Kurutzean dago eta, bestean, ilargi-erdiaren irudiaren ganean, Ama Birjina, Jesus Umea besoetan dauala.

IRUDIAK

Baseleizearen hormetan jatorriz beste inongoak izan eta bertan erabilitako harrizko irudiak egozan, hain zuzen be ertaroko hilarri bat, disko itxurakoa, XII-XV. mendeen bitartekoa, eta haren ondoan beste irudi bi: bata Ama Birjinarena eta bestea Kristo kurutzean dagoala. Ikerlari batzuen aburuz, irudi erromanikoak izan leitekez. Beste ikerlari batzuk arrain baten iruditzat jotzen dabez beste harri baten dagozan marrak.

Afruntuak-eta jotzen dauan aldera egoteagaitik nabarmen hondaturik dagozanez irudiok, Baseleizearen barrualdera eroan dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



ERMITA DE SAN SALVADOR Y SAN CLEMENTE DE GEREDIAGA Y LUGAR DE JUNTAS

ROBLE

Como en otros lugares de asamblea, en Gerediaga también consta la existencia de un Roble Foral. Con la construcción de la carretera Durango-Eibar (1789) el árbol, situado cerca del talud, desapareció pocos años después. El ejemplar actual creció en Gerediaga, siendo recuperado de un pequeño bosque que quizá se originó de las bellotas de viejo roble.

CRUZ

Se erigió en 1633 en piedra arenisca. Sobre el fuste hay un capitel y sobre este la cruz, que tiene en un lado la imagen de Jesucristo crucificado y en el otro aparece la Virgen sobre media luna llevando en sus manos al niño.

TALLAS

En el muro de la ermita aparecían varias piedras talladas reutilizadas. Se trata de una estela discoidea medieval de entre los siglos XII al XV. A su lado una imagen de la Virgen y otra de Cristo crucificado que algún investigador aventura podrían tratarse de tallas románicas. Otros investigadores identifican las marcas de otra piedra como la figura de un pez.

Al encontrarse en la pared más expuesta a las inclemencias del tiempo su estado se ha deteriorado considerablemente, por lo que ahora se encuentran en el interior de la Ermita.